

zakilixut

© Olariagak



Alberto Barandiaran | IRUÑEA

ATZEKOZ AUERRERA



«Orain ikastea ere...»

Nerbioak eta azken ahaleginak eragindako neke aurpegiak nagusi NUPeko hauta-probetan

Jo, ez dinat ezer ikasi». Eta errotuladore laranja fosforeszentearekin azpimarratutako lerroei begira neska, besteen karkailen artean. «Horrek ez din balio eta! Orain ikastea ere...». Baina, ondolan, beste hamaika berdin: lurrean eserita, eskuz hartutako oharrei begira denak. Fotokopiak, eskemak, laburpenak. Batzuk, buruz errepikatzen zorioneko zatia; beste batzuk, elkarri galdezka, lehiaketa batean bezala. Irakasleak, inguruan jirabiran, haiek ere urduri. «Hortik sartu, eta entzuten duzuenean izena, barrura. Animo». Gurasoak balira bezala.

Ez da ezer aldatu. Urtero berdin. Betiko adrenalina piloa, betiko esaldiak, betiko keinuak, betiko liturgia.

NUPeko ateetan urte osoko ikasle pilaketarik handiena zen atzokoa, zalantzarik gabe. 2.230 ikasle zeuden deituak batxilergoko ikasketa guztiak egun bakar batean errenditzera, eta ezohiko irudia zuen, horregatik, sarrera nagusiak: autoeskolak eta ikasketa zentroak iragartzeko kartelak, publizitate saltzaileak, Euskal Adarrekoen kartelak etorri berriek euskarazko karnetak erabil zituzten animatuz...

Aurten iaz baino 130 ikasle gutxiagok eman dute izena probetarako —unibertsitateko irakasleek gorrotatu egiten dute *selektibitate* hitza—, baina hori ez da berria. «Jaitsiera demografikoa», argudiatzen dute unibertsitatean, edo «lanbide heziketarako eskaintzaren igoera».



JOXE LACALLE

Nafarroako ikasleak atzo, NUPen, unibertsitaterako hauta-proba jaso baino lehen, elkarrekin hizketan.

Baina urtetik urtera, gero eta ikasle gutxiago. Horregatik, aurten, ia eskaintzen diren tokiak —1.975— adina ikasle daude probak egiteko. Kontuan harturik azterketa egiten duten gehienek gaintzen dutela proba, bada, aukeraketa gutxi. Beraz, zertarako aukeraketa?

«Unibertsitatean sartzeko beharrezkoa da ikastetxetik kanpoko probaren bat», argudiatu zuen atzo Jose Luis Goñi errektoreordeak, «horri esker kalitate maila jartzeko bidea daukagu eta. Nolabait esateko, kalitate kontrola da gaurkoa». Proba hauek, nolanahi ere, azken aurrekoak izan litezke, unibertsitateen esparrua moldatzeko egiten ari den egitasmoan aurreikusia dutelako 2003. urterako desager litezkeela. Berriak «ustekabea, zalantzak eta hase-reea» sortu dituela esan zuen Goñik. «Proba hauek arbitrarioak badira, lehenbailehen hartu behar da kentzeko erabakia».

Irakasleen artean ez zuten hain garbi, ordea. Elizondoko bere neska-mutilei azken animoak eman ondoren, Enkarni Peñak urte osoan egindako lana azpimarratu zuen, eta emaitzak, batez beste, oso onak direla. «Iaz denek gaintu zuten proba». Baina... zertarako egin euskarazko azterketa, epaimahai eta guzti, gero euskarazko ikasketak ezin badira egin? «Bai, ikasleek ere kezka hori badute, baina euskaraz jarraitu nahi dute. Beraz, hor daude beste unibertsitateak».

Aurten ikasleen %15,6k euskaraz egin dute azterketa. Eta NUPen, matrikulak behera.

CHAPUCETTI
T-SHIRT Co.

SERIGRAFIA TESTILA
Kamisetak, poloak, metxeroak eta abar.

Zigordia, 52 - Tel-Faxa: 943 13 05 25 (Tren geltoki ondoan)
e-mail: chapucetti@mugur.euskalnet.net
Mugikorra: 652 77 09 01

ZARAUZ